

## TRANSFORMACIONES EN EL PROCESO DE MORIR: LA EUTANASIA, UNA CUESTION EN DEBATE EN LA SOCIEDAD VASCA

Iñaki Olaizola Eizagirre  
Utriusque Vasconiae, 401 or.  
Donostia, 2012

Liburu honek lantzen duen gaia gaur egun euskal (edo europar) jendartean kezka bizi diren gaien artean erresumintsuenetarik bat da. Hau idazten ari naizen egun honetan berean, 2012ko azaroaren 11n, halabeharrez, *Sud-Ouest* dimanche kazeta hartu dut eta, bigarren eta hirugarren orrialdeetan, ondoko izenburu hau atzeman dut karaktere handiz idatzia: «L'euthanasie: le mot fait toujours peur» (Eutanasia: hitzak beti hotzikara eragiten du). Gai beroa bezain kezka-ardura eragiten duena dugu orduan aipagai. Baina beste gabe ausartuko naiz irakurleari aurreratzen fintasun osoz, heldutasunak ematen duen orekaz, sentiberatasunez urdurien egon daitekeenak ere gozo irensteko gisan idatzia dagoela aurkeztera goazen obra hau. Are gehiago dena, samurtasun beteko ariketa logikoa darabilenez egileak, irakurri ahala gure arrazoa limurtzen duela. Egin proga eta onartuko didazute, baietz, horrela dela.

Antropologia-saileko doktore-ezagutza balio izan zion egileari lan honek. Tesi batek ohiko dituen atalak eta erritmoak errespetatzen dituen idatzi bat da orduan. Baina apika horrek inolako trabarik ekartzen dion irakurleari. Ziur nago gaiak ere horretan zerikusi handia duela, noski. Ikerketa-jarduneko planeamendua honela argudiatzen zaigu: jakina da heriotza kultur prozesu bat dela eta, halako denez, aldaketa historiko-kulturaletan finkatu-

ta agertzen zaigula. Ondorioz, bidezko da hiltzen ikasi egiten dela oroitaraztea, hots, egun eta orain ez garela han eta lehen bezala hiltzen, eta, gainera, hemen eta orain norbanako edo talde sozial bakoitzarentzat molde desberdinean funtzionatzen duten premisa sozial, politiko, kultural, erlijioso eta ekonomikoen eragin pean hiltzen dela. Testuinguru sozial eta garaian garaiko balioen bilakaeraren emaitzaz, zehazten ahal duguna da, orain bertan ez dela 1960 urteetan bezala hiltzen euskal jendartean. Gertatzen ari diren aldaketen emaitzaz gure jendartean bi eredu dauzkagu, bata lehenaren eta bestea geroaren irudikatzaile direnak, hain zuzen. Baina gertakizun soziale-tako aldaketak gradualki egiten direnez, orain bertan bi ereduak aldi berean elkarren alboan bizirik (eta borrokan, agian) dauzkagu, continuum bateko hertz oposatuak bailiran, bata eredu tradizionala eta bestea biografikoa deitzen ditugularik.



1. irudia. *Transformaciones en el proceso de morir: La eutanasia, una cuestión en debate en la sociedad vasca* argitalpenaren azala.

Eredu tradizionala kontsentsuan oinarritzen da, antza denez beterik dago, hiltzeko prozesuak nolakoa izan behar duen agertzeko orduan. Horretan nahitaez bete beharreko arau orokorrak ederresten dira, molde zolian agertzen diren erregularutasun eta ortodoxia kulturalaren adierazletzat eman daitezkeenekin, jendartean formalki onartutako lege eta balioak indatzera datorren zigor eta aginduen sistema bezala funtzionatuz. 1960ko hamarkadara arte eredu bakar bezala iraun duenak funtsean kristau-tradizioaren eragina jasotzen du. Definitzen duten adierazgarri nagusiak ondoko hauek dira: pentsamendu erlijiosoaren hegonia, eta horrekin gure bizitza propioaren erabilgarritasun ezaren sentimendua, eta bizitza testuinguruan igarotzen zen eriazen zaintze etxetiarrak sendi hedatuak nagusitu, eta emakumeak ia eskusiboki eta derrigorrez sendiko kideak zaintzera behartzen zituena.

Eredu biografikoak, aldiz, laketze eta konformatze zaileko pertsonak onartutako aldaketa-ekimenak sarrarazten ditu, euren errepresentazio propioekin disonantzia gutxiago dauzkaten praktikak aukeratuz, eta diseinu pertsonalago bat, norberaren biografiarekin koherenteago bat ezartzen du, hots, autonomia eta askatasun kota handiagoetara apuntatuz. Gaurkotasunean produkzitzen ari diren aldaketa kultural eta demokratikoen isla dira, nahiz eta horietariko batzuk orainokoa aurreemergentzia aktiboaren epean egon, aldiz, beste batzuek benetako eredu emergente gisa funtzionatzen dute jada.

Egiantan, eredu honek heriotza eta hiltzearen hautemate desberdin bat dakar. Hiltzea ez da bakarrik bizitzatik lokabetzen gaituen heriotzaren egitate

bat, zeren benetan gertatzen dena da bizitza bere azken epeetan prozesu konplexu bezala ageri dela, zeinetan eritasuna, dependentsia, heriotza propioaren egitatea, jarraitzen dion hilibiratze errituala, eta abar, bizitza propioaren epe funtsezko dituen: hiltzearen prozesua, alegia. Ondorioz, epe hori bizitzeko, hiltzen ikasteko eta hiltzeko modu desberdinen artean (nola hil nahi dut?) hautatzea erabakitzeke, pertsona batzuk, eritasun eta dependentsia epea hasi aitzin ardua eta pertsonalizazio handiagoko kotak euren buruarentzat onartuz euren soziali biografikoarekin antzekoagoko bilakatzen diren premisa etiko eta balioen ikuspegi berrietara egokitzen dira. Horretarako, bizitza eta heriotzaren kalitatea, bizitzaren adiera, hiltzeko norbere prozesuaren eragina besteengan, botikaren eragin teknologikoa, bioetikaren postulatuak, modu autonomoagoan hiltze prozesua bizitzeko nahia, independenteago eta eredu tradizionalan bereziki gertatzen diren gordetze eta gezurtze printzipioetatik urrunduago egotea lortzeko beharrezko direnak, gogoeta gaitan sarrarazten ditu.

Arrazoi hauengatik, eredu biografikoaren bilakaeran heriotza prozesuan azalarazten diren praktika batzuk sarrarazteko nahia pizten da, beste adierazgarri batzuen artean gogoeta bat plazaratuz, egoeraren ezagutza medikopsikologiko handiago bat ukanaz hiltzearen prozesua kudeatzeko eta bizitzari zentzu pragmatikoago bat emateko eta ongizatearen estatu erlatiboki hobetarako batean bizitzeko nahia besteetara luzatuz, horrek dakarren kostu ekonomiko eta emozionala kontsideratuz; baita ere, bizitzaren amaieraz, hiltze zirkunstantzia eta unean kontrol pertsonala eragiteko aukeraz eztabaidatzea dakar; eta, azkenik, hilibiratze praktikei dagokionez, biografia

propioarekin adosago legokeen norbere hilobiratze erritual bat eraikitzen saiatzea.

Eredu bi hauek denbora berean existituz praktika eta errepresentazio zenbait trukatzen dituzte, are, aplikatzen diren testuinguruaren funtzioan batarenak bezala bestearenak diren alderdi partzialak aurki daitezke bietan, baina beti dinamikoa den elkarbizitza honek, abaguneen arabera, jendarte propioaren altzoan sufrikarioa eta zorion eza emendatzen laguntzen duten tentsioak daramatza. Horregatik, egileak zera diosku, eredu biografikoa demokratikoagoa dela uste dudalako, zeren eskubideetan denok berdintzen baikaitu eta ez da aldiz hala jendartearen zati batean bakarrik oinarritzen diren sinismenekin jarduten direnek egiten dutena, lan honen xedeetariko bat eztabaida eta aldaketa soziala errazten saiatzea dela.

Hainbat emaitza berri aurkitzen dugu gaur egungo gure jendarteetan: zahartze prozesua gero eta gehiago luzatua; hilkortasunaren adierak berriak; zaintzak eta osasun-laguntzak bazter guztietatik; etabar. Bizitza itxaropena luzatzean, dependentzia epearen hedatzea eta zaindu beharraren ugalketa ere orpoz orpo bilakatzen doazenean, hiltze eta eutanasiaren prozesuarekin harremanean dauden praktikak eta eztabaidak bestelakotzen doaz. Inkestek dakartenaren gainean hainbat egiaztatze egingo dizkigu tesiaren egileak bere abiapuntuko funtsa ezbai-egoeratik jalgiazarzteko.

Honela aldaketa sozialak eta politika sozialak aipatuko dizkigu hasteko. Ondorio bat ateratzeko orduan kezka garri denarekin topatzen da: bizitza iraupenaren itxaropena gero eta handiago izateak, eta laneko adinean dauden pertsonen kopurua gutxiago-

tzeak, babes soziala bermatzeko erreformen beharra erakusten duela, alegia. Baina desafio hori beldurgarria daiteke krisiaren kaosa dela-eta. Ildo beretik doa ere dependentzia eta zaintzeko beharraren errekerimendua. Bestalde, elkarbizitzaren moduetan dauden aldaketak laguntza gehiago eskatzera doaz. Baina hori nork eman dezake? Tradizio familistan emakumeen bizkar eta urrik egina izan dena nork eta nola ordezkatu du? Emakumeen eskubidea defenditzen hasten da puntu honetara ailegatzean: zaintze lana hain da gogorra non zaintzaile ez izateko eskubideari eskua luzatzen baitio. Hilkortasunari dagokionez ordena demografiko bat ageri dela ere konfirmatzen digu: Euskal Autonomia Erkidegoan 2008ko urtean hildakoen % 83,5 65 urtez goitikoak izan ziren. Eritasun terminalean sartzen direnen arazoak azpimarratuko dizkigu ondorioz.

Eta zer dira eutanasiari dagokionez dauden jarrera eta praktikak? Arazoak datoz aldaketa kulturalen arlotik ere. Arras konplexua ageri da bizitzari buruz arduratzea gaur egungo baldintzetan. Hiltze prozesuaren alorreko aldaketak beste prozesu zenbaitekin interdependentzian baitaude egituraren ikuspuntutik bezala ideologiarenetik. Gainera aldaketa batzuk makroegiturak direnean aldi bereko beste batzuk mikroegiturak izanik batzuek bezala bestetzuek pertsonen rol zentralaren inguruan eragiten baitute. Eta joku zail honek pertsonen baitan barren gatazkaren sortzaile izanik disonantzia kognitibo bezala ezagutzen duguna ondorio eragin dezake.

Lau atalburutan zenbatuko dugu aurrerantzean egiten duen gogoetaren biakaera diskurtsiboa: 1.- Eritasuna eta dependentzia. 2.- Heriotzaren aitzineko epea eta heriotza unea propioki.

3.- Eutanasiaren auzia. 4.- Erantzun beharrezkoei buruzko galdera nagusiak.

### **Eritasuna eta dependentzia**

Adineko pertsonen bizitza itxaropena hamar urteren buruan sei urtez luzatu izana berez berri ona daitekeena berehala berri kezkarri eta arazotsu izatera igarotzen da. Zeren luzatu bai luzatu baina eritasunean egonez luzatzen baita gehienetan, eta hori dependentziaren sinonimo ere bada. Lanaren egileak hainbat jenderekin elkarrizketa aberatsak eginak ditu eta horietan adierazitakoetatik egiaztatze bat nabarmentzekotan zahartzaroaren luzapenak zahar gogoetarienei horrelako bizitzaren zentzu eta kalitateaz eragiten dizkieten buruhausteak daude. Zeren zahar gogoetarien diren horiek hain zuzen epe horretan ere euren bizitzaren kudeaketa arduratsu gorde nahi baitute. Zaila dena, noski. Egoera horretan daudenen artetik egoera berritzaile bat sortzen doala ere esan liteke, hots, pertsona horiek bizitzaren kalitateari gutxieneko baldintza batzuk ezartzen baitizkiote, garbiki adieraziz horiek betetzen ez badira ez luketela bizitzen jarraitzerik nahi. Lekuan lekuko lanean, adin horretako emakume talde bati gutxieneko baldintza horiei buruzko galdera egin izan zaienean, hau erantzun dute: gutxieneko baldintza horietarik lehena, sufrimendu eza-rena litzateke. Baina gainera euren alabek zainduak izateari ezetz biribila ematen diote aurretik hildako etxe-koekin eurek jokaturako rolak utzi dizkien oriotzapen samina dela-eta. Euren etxe propioan bizitzeko baliabideak galtzen badira, hiltzen lagun diezaieten nahia agertzen dute. Bizitza landare-bizitzara mugatzen hasten denean zentzugabekotzat daukate. Egia da hau guztia erlijioak argitutako bizitzetan besterik dela. Baina gogoeta

gero eta pentsamendu laikoagoz eraikia daukatenen artean besterik da. Tradizionalki nagusi izan den zaintza jaso eta etxean hil hori alternatiba batzuek inguratua ageri da gaur egun zaharren kopuru erraldoia eta zaintzaileen profesionalizazioa ugaltzen doanean. Baina erresidentziak, sendi hedatuko kideak zaharren inguruan ostera ere elkartzea, harrera etxeak sortzea, eta abar alternatiba eztabaidagai dira, eta ekimen berritzaileak puripurian daude. Arreta berezia mereziodio egileari gizonezkoen jarrerak zaintzaile gisa zeren eurek gogoko dutenei laguntza hori emateko eskubidea errebindikatzen dutenean, eurak, aldiz, edozein emakumezkorengadik laguntza jasotzeko buruhausterik gabe prest daude.

### **Heriotzaren aitzineko epea eta heriotza unea propioki**

Eritasun eta dependentziaren epea amaitzean, heriotza propioaren onarpena egiten den epea datorrela esan zuen Kübler-Ross ikertzaileek jada 1960an. Hasierako heriotzaren aurkako asaldura hura itzaltzen doalarik, hurbil ikusten den heriotzaz portaera arau berri batzuk sortuz gogoetak egiteari toki ematen zaio. Heriotza eritasun edo dependentziaren ondorio datorrenean, gaizki hiltzen delako irudikapena zabaldua dago. Eta irudikapen hori garrantzitsua da zeren bizitzaren kalitatearen adierazle baita. Ikuspegi laiko eta zibil batetik ozta-ozta bada ere heriotza ona edo kalitatezkoaren ideariuma zertan legokeen ikusten hasia dago, eta egozten zaizkion ezaugarriak, ikuspegi tradizionallean ongi hiltzeko arteak deitzen zitzaion hartatik arras urrun daude. «Minik gabe, oharkabe, lotan, adin aitzinatuan, etxean, besteentzat kostu gutxi suposatuz» deskribatu zituen Maria Angeles Du-

ranek 2004an. Baina errealki gutxitan betetzen dira nahaikeri horiek gaur egun oraino. Zaindari lanetan parte hartu izan duten gure berriemaileek horren lekukotasuna eman digute behin eta berriz diosku ikerketaren egileak. Hala ere, ez dezagun ondoriozta hiltzen ikasterik ez dagoenik. Botika gozagarrietan egon den aurrerapena horretarako urrats gogoangarria gertatzen ahal da, baita heriotzaren zirkuntantzia eta uneari inguru bat izendatzeko orduan konpetentzia pertsonaren gradu bat dagoenean ere. Marga Iraburuk, 2005ean adierazi zuenez, «hiltzea nahi dut eta ez hil nezaten» esaldia errealitate bihurtzen ikas bageneza.

### **Eutanasiaren auzia**

Marvin Harris eta Eric B. Roosek 2006an idatzi bezala, gogora dezagun betidanik gure egunak arte, «sortze eta heriotza fenomenoak kontrol sozial baten pean egon izan direla, eta horretaz jabetzeko ez dagoela esplizitoki formulatutako politikiei so jarri beharrik, aitzitik praktika pribatuen historia ixila kontuan hartzea aski dugula». Gure artean oraino eutanasia isilpekoaren jarreraz bizi bada ere, gure ingurune hurbileko hainbat herriraldetan, Holanda, Belgika eta Suitzan, besteak beste, eutanasiarako edo bere buruaz egiten laguntzeko eskubidea erabiltzeko modu desberdinak legezaturik dauzkagu. Etika berrien, eskubide berrien eta heldutasun prozesuan arrazoitze berriak bilakatzearen ondorio praktika horien eskubide bezala zilegizko izaera eragiten doa gogoeta moduan. Ez gara sartuko eutanasia definitzeko orduan egon daitezkeen eztabaidetan. Ezaguna da eutanasia kategorია eraikitzea ez dela eginkizun erraza. Haren errepresentazioek «konzeptu lausoa»ren edo «kategoria zehaztugabea»ren ezaugarri guztiak

edukitzen jarraitzen dutela. Batez beste, oro har, eutanasiaren kategoria definitzen denean erabiltzen diren kriterio nagusiak hiru gertakizunen ardatzean lotzen dira: parte-hartzaile diren subjektuak; horiek eutanasia egiteko dauzkaten arrazoiak; horren ondorio hiltzen den norbanakoak heriotzari aitortzen dion gurazko onarpena, hain zuzen. Bizi garen unean bi joera daude eskubidearen adierazpenari dagokionez. Batak hiltzeko eskubidearen existentzia «duintasunez hiltzeko eskubide bezala formulatuta» pertsona batek anitz sufritzen duenean, hots, eritasun terminalari lotuta doanean justifikatzen du; besteak, aldiz, hiltzeko eskubidea pertsonak hala iritzen dion edozein egoeratarazabaltzen du. Bistan dago gaur egun gehingoak errazago onartzen duela «duintasunez hiltzeko eskubidea». Baina hau guztia bide berria egiten ari da, eta denbora gutxi barne aurrerapen handiak ezagutu ditzazkegu gure legedietan.

### **Erantzun beharreko buruzko galdera nagusiak**

Liburuaren arrazoitze prozesua galdera pragmatiko batzuei lotzen zaie heldu garen maila honetara ailegatzeari. Horietatik lehenak honela dio: zer egin behar da gaixorik dagoen pertsona batek hiltzeko borondatea espresuki aitortzen duenean? Gaixoa medikuei zuzentzen bazaie, hauek kontzientzia eragozpenarekin ihardets dezakete. Baina hiltzeko eskubidearen aldeko militanteak horrelako medikuei erantzun egingo die: pertsonaren autonomia proklamatzaren duten eskubide hoberenak eta eztabaida bioetikoaren pentsamendu propioa gogoratuz, pertsona gaixo baten hiltzeko borondatea beti eta nonahi errespetatu egin behar dela esanaz, alegia. Hala ere azpimarratua izan dadila, horrela jardutean ez

direla inolako bortxaketarik bultzatzen ari, aitzitik pertsona batzuek zilegizko kontsideratzen duten hiltzeko eskubidearen urratzea salatzen dutela baizik.

Bigarren galdera honako hau da: zer egin behar da eritasuna arras egoera aurreratuan dagoenean, gaixoa bizitza eta heriotzaren artean borrokatzen ari denean? Horrelako egoeran lekuan lekuko ikerketaren ondorioz jasotako datuen arabera, jendetzaren gehien-goia eutanasiaren alde ageri da, hots, «duintasunez hiltzeko eskubidea» aplikatzearen alde, alegia. Eta egoera horretan dagoenak abururik emateko aukerak galduak dituenen, zer egin? Azken borondateen ituna aurrez presatuta edukitzeko gomendatzen da.

Hirugarren galderak honela dio: Pertsona batek anitz sufritzen duenean, zer egin diezaiokegu? Egoera terminalean ez dauden pertsonen kasua litzateke azken hau. Balizko egoera horretan bizitzari bere bidea egiten uztearen aldeko aburua da tradizionalki nagusi dena. Aldiz, eredu biografikoan oinarritzen direnek, uste dute, baldintza horietan ematen den bizitza ez dela duina, eta, ondorioz, urrikal-menduaren, eta posibleki bioetikaren justizia eta benefizentziaren izenean, eutanasia prozesuak aplikatzen ahal zaizkiola hala eskatuz gero.

Laugarren galderak hau dio: zer egin behar da pertsona batek hiltzeko nahia agertzen duenean? Kasu honetan gaixorik ez dauden pertsonen hiltzeko eskubidea dago jokuan. Arras kontrajarritako iritziak daude egoera honen aitzinean. Hala ere, egileak aitortzen digu berak eramandako ikerketan galdezkatutako jendearen gehien-goak hiltzeko eskubidea bizitza kalitatearen aintzakotzat hartzeko moduko hondamenari lotzen diola. Izan ere, galdezkatu dituen jendetariko

askok pertsonaren autonomia osoaren aldeko jarrera eta bere borondatearekiko errespetua agerturik ere, «ez dute ulertzen» hiltzeko nahiaren agerpen soila, itxurazko beste kausarik gabe, orduan ez litzateke aski den inori esku-bide bat onartzeko. Jende desberdinen aitorenekin ilustratzen zaigu esana.

## Ondorioak

Lan honetan zehar behin eta berriz adierazi digu egileak, jendea hiltzearekin baino arduratuago dagoela heriotz txar bat, hots, kalitate eskaseko bat ukaitearekin. Horrela, bada, hiltzeko prozesuari eta eutanasiari lotutako galderen inguruan norberarena bezala besteena den heriotzaren kalitatea hobegotzeari bultzada emateko, gogoeta eta eztabaida soziala sustatzea mesedegarri litzateke. Bestalde, emakumeek heriotzari loturik historikoki ukan duten rol laguntzaileagatik hiltze prozesuan inplikazio jatorragoa erakusten dute. Horrela irakurri behar da itun bitala egin dutenen artean emakumezkoen kopurua anitzez handiagoa izatea. Baita Euskal Autonomia Erkidegoan ere Heriotza Duina Eskubidearen aldeko Elkartean emakumezkoen parte-hartzeak gizonezkoenak bikoiztu egitearena; nagusiki errukiak bultzatuta, eutanasia ekimenetan gehien parte hartzen dutenak ere emakumezkoak dira.

Gogoeta honek ere, zeharka bederen, zerikusian dago erakundeak adineko edo dependentsia handiko pertsonentzat bultzatzen ari diren erresidentsia espezializatuen gaiarekin. Baina, gaur egun oraino sendi askok eta jendearen hainbat kategoriak portaera hori desbideratutzat ematen jarraitzen du. Jendarte laiko eta zibilaren eraikuntzan aurrera egitea kome-niko litzateke, hots, legearen bitartez

eta inolaz ere ez kontzientzia erlijio-  
soan oinarrituta biziko litzatekeenean.  
Osasuna ongi laiko bat baita.

Finean, hiltzeko eskubidearen lorpen bila sakontzeko, beti eztabaida bidea sendotzen jarraitu behar da. Eta hori gertatzen arituko den bitartean, legeetan jada dauden eskubideen betetze erreal bat eskatu behar da. Ongizatearen estatua pairatzen ari den krisian zeharo arriskutsua izan daiteke gaurko egoera, zeren erakundeek pertsona heldueen beharrei lotuta hasia zuten politika zaintzailea bilakatzea

albora utz baitezakete. Erakundeen alorrean lege berrien bidez urratsak eman behar dira eta horiek lortzean betetzea ziurtatu. Norbanakoen baitan berriz bizitza propioaren arrazionalizazio pertsonalizatuaren bidez gure bizitzen kudeaketan arduratsu nahastentzen saiatu beharra dago.

Bibliografiari dagokionez, liburua aberatsa eta zehaztua dela esango dugu. Horrela gai honetan areago murgildu nahi duanarentzat eskuragarri dago jakintza bidea.

Jokin Apalategi Begiristain

